

2025
URTEKARIA




ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO TRIKITXA ELKARTEA

2025

URTEKARIA



ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Harpidedunentzat doako alea

Erredakzioa

Irune Elizagoien

Koordinazioa eta ekoizpena:

Andoitz Antzizar eta
Maidor Jauregi

Diseinua eta maketazioa:

Antza S.A.L.

Inprimaketa:

Antza S.A.L.

Lege gordailua:

D 01362-2020

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea
Enparan kalea 18
20730 Azpeitia
Gipuzkoa
Tel.: 657794217 / 669363492

Emaila:

trikitixa@trikitixa.eus

Webgunea:

www.trikitixa.eus



NEGUA

- 5 Albisteak
- 7 Iritzi artikulua
- 8 Galbahea
- 9 Hamaika ikusteko!

UDABERRIA

- 11 Albisteak
- 14 Argitalpen berriak
- 15 Galbahea
- 16 Atzera begira

UDA

- 17 Albisteak
- 18 Argitalpen berriak
- 19 Galbahea
- Elkarrizketa

UDAZKENA

- 20 Albisteak
- 24 Argitalpen berriak
- 26 Galbahea

NEGUA



Luziano Soraluze Balentziaga *Porrutxo* panderojolea zendu da

📍 Azkoitia

📅 Martxoak 16

Luziano Soraluze Balentziaga *Porrutxo* panderojole azkoitiarra 78 urte zituela zendu da martxoaren 16an. Hainbat txapelketatan ibilia, urte luzez plazaz plaza aritu zen panderoa asintzen. Hastapenetan bere anaia Tomas Soraluze *Epelde* soinu-jolearekin aritu zen; 1972an, esaterako, Txapelketa Nagusia irabazi zuten Donostiako Trinitate plazan, "Epelde anaiak" izenarekin. Gerora, Joakin Errasti *Epelarre* soinu-jolearekin ere aritu zen.



Argazkia: Ibon Errazu

Esne Beltza taldeak agur esan du

📍 Bilbo

📅 Otsailak 1

Esne Beltza Euskal Herrian sortutako musika taldea izan da. Sorrerako ideia Xabi Solanok izan zuen, Fermin Muguruzarekin egindako biran zehar. Taldearen izena Muguruzak proposatutako paradoxa batetik dator: abeslari zuriek musika beltza interpretatzea. Egiten duten musika reggae, hip-hop eta ska-ren nahaste bat da, trikitiarekin lagunduta.

18 urte bete dituenean esan du agur taldeak. Durangoko Azokarako atera zuten Esne bidea azken diskoarekin jakinarazi zuten taldearen azken pausoak ematen ari zirela. Azken festa honetan, Xabi Solano buru delarik, Esne Beltza osatzen duten musikari eta abeslariak gain, oholtza gainean izan dira Fermin Muguruza, La Pegatina, Chambao, Iker Vicente eta Malen Barrenetxea aizkolariak, AMAK, El Canijo de Jerez eta beste hainbat artista.



Argazkiak: Gaizka Peñafiel



IRITZI ARTIKULUA

Maialen Akizu

NAHIKO LARRI

Do, mi, sol, la-si-la sol. Do, mi, sol, la-si-la-sol. Sol, si, re, tun-tun-tun, fa, mi, re, mi-sol-mi, do. Bederatzi urteko neskatoa irakaslearen aurrean kalejira jo nahian ari da. Urduri mugitzen ditu behatzak. Badaki etxean gehiago entseatzeko esango diola, eta badaki arrazoi duela. Orduan jakingo ez duena da, agian, ez zela ari irakaslearen aurrean kalejira entseatzen, kalejira erakusten ari zela, pieza hura bazekiela erakusten, eta zenbat aldiz eskatuko dioten hori gerora. Bederatzi urteko neskatoari kosta egiten zaio tresilloan atzamar txikia mugitzea, ez da iristen, eta irakasleak esaten dio notak entzun baino lehen irakurri behar direla, begirada aurreratu behar duela partituran, azkar eta garbi egin behar direla gauzak, azkar eta garbi, ri-rau eta ondo. Neskatoak tresilloa iris-tear denean arnasari eusten dio. Eta hori egingo du gero iritsi ezin den garaietan.

La-re-la-re fa, mi-fa-mi re, re-mi-fa-sol la-si-la, fa-la-fa re. *Etzakit*-en “Izar iheskorra” esku batekin bere kasa ikasi zuen nerabeak gerora jakingo du beretzat “Fandango 7” zenak “Albiztur” zuela izena. Festetan gustatzen zitzaion kuadrillari erromeria – “Txanpon baten truke”, “Konpostela”, “Jo Ta Ke”-ren bertsioa-. Beti-betiko erromeria, gaur egungo erromeria ere badena. Gero, tabernara sartu eta “Danza Kuduro”-rekin puzten zitzairen lepa-zaina, “This is the life”-rekin bilatzen ligearen begirada, eta “Pasodoble”-rekin aprobetxatzen zuten komunerako. Tabernako asteburuetakoa musika eta festetako noizbehinkako erromeria. Beti-betiko, gaur egungoa ere badena.

Tan-tan, re, mi, fa, re, do-la-do-la. Tan-tan, re, mi, fa, re, do, la, sol-la-sol, fa. Tan-tan, re, mi, fa, re, do, la, do, fa, sol, la, fa, sol, mi, fa. Polka batean eman diote lehenengoz elkarri eskua bizi-lagunek. Aristerrazuko borobilaren adin batez bestekoa nekez kalkulatzeko da begiz. “Aupa Maurizia!” oihiu egiten du Euskal Herriko feminismoak. “Larri” hitzak bi esanahi ditu, gutxienez: (1) larri: estu, zailtasunekin, urgente; (2) larri: handi, maiuskuletan. Gu beti nahiko larri.



GALBAHEA

XABIER ETA LEIRE BERASALUZE LETURIA AITA-ALABAK

Leire, Leturia ezizena eramateak mesede ala kalte egin dizu?

Ez nuke esango inongo kalterik egin didanik. Azkenean, beti izango dut Leturiaren alabaren aurkezpena, baina, ez da inongo kalte, are gehiago, betidanik pentsatu izan dut, kanpotik betidanik interpretatu nahi izan dela entxufe moduko bat. Egia da, horregatik ere zenbait jendek ezagutu nauela, baina neure kabuz lortutakoaren inongo zalantzarik ez dut. Pisu handiagoa da, adibidez, orain, Oñatin bizitzen ari naizela, Herri Eguna ospatzean, trikitilari talde bat oholtzan eta jendea panderoa hartzeko esanez egotea. Leturiaren alaba izateagatik ez du panderojolea naizenik esan nahi.

Xabier, musikari gisa daramatzazun urte hauetan guztietan egindako saio edo erromeria guztiak zenbatuta al dituzu?

Bai bai, guztia apuntatuta dago. 1.400 edo 1.500 emanaldi inguru daramatzat. Gainera, orduan ez genituen egun dauden aukerak izaten.

Tolosaldeko ataria. 2025/01/23

XABIER SOLANO eta JON GARMENDIA

1995. buelta horretan hasi zineten elkarrekin. Nor zen orduan Xabi Solano eta nor Jon Garmendia?

Xabi Solano: Ni gaztetxo bat nintzen, trikitixa txapelketetan zebilena. Justu Munduko Trikitixa Txapelketa irabazi nuen 1995ean Italian. Hura pasa eta gero, txapelketak utzi nahi nituela erabaki nuen, beste zerbait egin nahi nuen. Jon Mari Beasain eta biok erromeriatan jotzen ibiltzen ginen garai hartan. Geroxeago batu zen gurera Ander Barrenetxea ere. Ereñotzuko gaztetxo bat nintzen, musika maite zuena. Gehienbat trikitixaren munduan ibiltzen nintzen; Aizterrazun, Oialumen... Hernanira ere gustura joaten ginen Ereñotzuko kuadrilla eta bertan, Jarkin, ezagutu nuen Jon Garmendia *Txuria*. Gu orduantxe Hernaniko mugimenduan sartzen hasiak ginen, Ereñotzutik etorrira kuadrillan.

Jon Garmendia: Nik militantzian sinisten nuen. Pentsatzen nuen boluntarioki zerbait egin behar genuela herri hau beste norabide batean jartzeko. Urte ilunak ziren, fabrikak ixten ari ziren, langile asko kalean, industria krisia... guk gazte mugimenduan militatzen genuen, hor ikusten genuen gure burua. Ikasle garaian Gasteizen egona nintzen unibertsitatean eta orduan etorri berri nengoen Hernanira. Maite nuen idaztea eta bertsoak ere maite nituen, baina autodidakta izan naiz horretan, ez naiz bertso-eskolan ibilia. Herriko tabernan asko egoten ginen. (...) Hernanik herri bezala preso asko zituen, beti hogeiko lerro horretan, gero-ra gainditu duena. Oso herri konprometitua zen eta gu, gazteak, bide beretik. 'Jaia bai, borroka ere bai' zen orduko leloa eta biak egiten genituen. Giro hartan elkartzen ginen Jarki tabernan eta han ezagutu nuen Xabi. Gogoratzen dut gaztetxo, nigana gerturatzen. 'Hi bertsolaria haiz, ezta? Nik kanta pila zeukaat'. Eta ni, ulertu ezinda, 'nola kanta pila?'. 'Bai, kristoren pila', bere erantzuna. Eta pentsatu nuen, 'ño, gaztetxo hau...'. Artean ez zituen 18 urte. Gus-tatu egin zitzaidan bere ausardia, zer nahi zuen garbi zeukala iruditzen zitzaidan eta konexio ona izan genuen.

7K. 2025/01/25

JOXE MANUEL AGIRRE

Erraz hartu zenion eskua?

Bazen beste danbolin egile bat, Urretxun [Gipuzkoa], Iñaki Barrio Urtizberea, eta harekin ere oso harreman estua lortu nuen. Haiek era batera egiten zituzten moldeak, eta nik beste aldera. Hemengo lagunak ematen zizkidaten ideiek lagunduta, pixkanaka hasi nintzen moldeak egiten, pintatzen... denak etxean egiten genituen.

Atal asko ukitzen dituen ofizio bat da: egurra, burdina, sokak... Arazoak ere izan ditugu. Zenbait gauza desagertuz joan dira merkatutik: larru-ontzaileak, adibidez, geroz eta gutxiago daude; beraz, kalitatezko larrua lortzea oso zaila bihurtzen ari da. Egurrarekin ere zenbait arazo izaten dira, eta errementariak ere desagertzen ari dira. Zenbait pieza lortzeko zailtasunak daude... merkatua globalizatua da, baina zenbait gauza zailtzen ari dira.

Berria. 2025/02/16

AMAIA GARCIA URIONDO

Edonork bota dezake irrintzi bat? Zelan?

Edonork. Hau beti izan baita imitazio kontu bat. Eta ez gara bakarrak munduan hau egiten dugunak. Kultura askok dituzte halako emisioak. Litekeena da azken soinua ezberdina izatea, baina kontua da zelan bihurtu zeure gorputza 120 dezibel har ditzakeen amplifikadore bat. Hau nola egin? Arnasketa laguntzeko teknikaren bidez. XIX. mendean jada deskribatu zuten teknika hori. Egin behar duguna da teknika hori geure gorputzetara eraman. Irrintzilari bat beti ikusiko duzu erratz makila baten moduan: tente. Gorputzak ez dio-eta utzi behar diafragmari husten. Zenbat eta tenteago egon, diafragmak ez du gorantz egingo. Diafragma da gure gorputzeko muskulurik handiena, eta arnas aparatua eta digestio aparatua bereizten ditu.

Berria. 2025/02/19

MARTIN AGINALDE

Azaroan kaleratu zenuen disko berria. Zer aurkituko dugu bertan?

Nik sortutako piezak dira guztiak, eta lagun ezberdinak izan ditut aldamenean. Jon Ansorena txistuarekin, Iker Telleria perkusioan, Gurutz Bikuña gitarra akustikoarekin, Joanes Ederra baxuan, eta Olaia Toralen ahotsa. Hamabi pieza batzen ditu diskoak, estilo ezberdinetakoak. Soinuaren presentzia nabarmena da guztietan; baita beste musika-tresnen eta ahotsarena ere. Gustura geratu naiz emaitzarekin. Orain bigarren diskoa prestatzen ari naiz, dagoeneko sorkuntza prozesua nahiko aurreratua dago. Doinuak sortuta daude, eta letragileei ere bidali dizkiet. Xabier Euzkitze eta Sebastian Lizaso ari dira bigarren disko honetako hitzak sortzen. Haien lanak jasotakoan musikarien taldea osatu, eta azaroa inguruan grabaketa lanak egitea espero dut. [...] Bigarren disko hori eskuartearen dudanean aurkezpen ofiziala egin, eta emanaldiak eskaintzen hastea da nire asmoa.

Aiurri Beterri-Aitzondoko hamaboskaria. 2025/03/21



1972ko Usurbilgo Trikitixa Eguna oroitzuz

📍 Usurbil
📅 Martxoak 22

1972an Usurbilen egindako Trikitixa Egunak jarri zuen hazia Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak sortzeko. Egun hartatik hasita 50 urte baino gehiagor lanean dihardu Elkarteak. Mende erdia bete duen honetan, historia guztia biltzen duen liburua idatzi zuten Laxaro Azkune eta Haritz Garmendiak. Liburuaren xehetasunak eta bertako pasarteak kontatu dituzte bi idazleek Sutegin egin den aurkezpenean. 1972an Usurbilgo trikitixa egun hura antolatzen aritutakoei eta beren familiakoei eskertza egin dio Elkarteak eta oroigarriak banatu zaizkie.



Argazkiak: Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

1972ko Usurbilgo Trikitilari Eguna data garrantzitsua izan zen garai hartan trikitixa jotzen zuten 100 bat lagun elkartzeko. Ordura arte, herri batzuetan trikitilariak omendu zituzten, baina ez Usurbilen egin zuten bezala talde izaera emanda. Herritar ezagun askok hartu zuten parte antolaketan; besteak beste, Artze Anaiek eta Zumetatarrek. Eurak izan ziren 1972ko Trikitilari Egunaren sortzaileetako batzuk.

Jexux Zialtzeta Eizmendi *Bidani motza* panderojolea zendu da

📍 Azkoitia
📅 Apirilak 1

1975ean Eugenio Alberdi *Zabaletarekin* Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuen eta 1978an omenaldia jaso zuen Urretxun, Zabaletarekin batera. Harrezkero, mahai inguruak eta Santa eske askotan aritu zen panderoarekin ingurua alaitzen. 79 urte zituela zendu da Azkoitiko panderojolea.



Argazkia: Ibon Errazu



Euskal Herriko Trikitixa Eguna Agurainen

📍 Agurain

📅 Apirilak 5

Ehundaka soinu-jole, panderojole eta trikitizale elkartu dira apirilaren 5ean Agurainen ospatu den Euskal Herriko Trikitixa Egunean. Goizean Euskal Herria Plazan elkartuta, kalejirak egin dira auzo eta talde ezberdinetan banatuta. Eguerdirako 650etik gora lagun batu dira Aniturri frontoian guztiak elkarrekin bazkalatzeko. Bazkalondan, aisialdi jolasetan gozatzeko aukera izan dute 12 urtetik beherakoek eta mahai inguruko giroa aprobetxatu dute gainerakoek. Arratsaldean, San Juan plazara iristeko egindako kalejira erraldoiak eman die bertaratutakoei arreta; ikusgarria izan baita hainbeste musikariz osatutako talde itzela. Bide Batez taldearen erromeriak eman dio amaiera jaiari.



Argazkia: Itsaso Elizagoien

Musikako irakaskuntza profesionalen barruan sartu dute trikitia

📍 Azpeitia

📅 Apirilak 12

Otsailaren 18an Espainiako Ministro Kontseiluak trikitixaren espezialitatea sortzea onartu zuen musikako irakaskuntza profesionalen barruan. Martxoaren 6an atera zen Errege-Dekretua.

Erabaki honek elkarteak orain arte ikerkuntzan eta bilketan egin duen ahaleaginean ere eragina izan dezakeela ikusi da. XXI. mendeko erronka nagusia izango da gai hau.

Trikitixaren irakaskuntzan ekar lezakeen inflexio puntuaz jabetuta, etorkizuneko trikitixa baldintzatu dezakeela uste du EHTEk. Hala, irakasle eta bazkideen iritzia jasotzeko, hausnarketa prozesua abiarazi du eta ez-ohiko bi batzar egin dira apirilean eta maiatzetan.

Ekainean, aldiz, bazkide guztiei galdeketa bat bidali zaie Elkarteak zein bide hartzea nahi duten jakiteko. Guztira 126 bazkidek bozkatu dute eta haxe izan da emaitza:

- EHTEk erakunde publikoei soilik lagundu behar die: 3 boto (%2,38)
- EHTEk bere alor pedagogikoa soilik lantzen eta indartzen jarraitu behar du: 26 boto (%20,63)
- EHTEk bi arloetan lan egin behar du: 90 boto (%71,43)
- Baliogabeak: 7 boto (%5,56)

Manuel Arrizabalaga *Izer* trikitilaria zendu da

📍 Azkoitia

📅 Maiatzak 19

Manuel Arrizabalaga *Izer* soinu-jole eta panderojolea zendu da 74 urterekin. 8 urte besterik ez zituela hasi zen panderoa jotzen. Hark zaila zuen trikitilaria ez izatea; izan ere, garai batean igande arratsaldero erromeria izaten zen bere jaiotetxea zen "Izer" baserrian. Erromeria haietako soinu-joleetako bat bere aita izan ohi zen, eta panderojoleak, bere osabak. Hasi eta hamar urtera eskaini zuen lehen erromeria, 18 urterekin, hain zuzen. Panderojoleen artean Egañazpi eta Landakanda zituen hark eredu, eta inguruko askok bezala, Urrategi eta Martirieta auzoetan egin ohi ziren erromerietan ibili zen. Beste soinu-jole batzuen artean, Auntxa eta Zendoia soinu-joleekin batera ibili zen Izer.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen omenaldia ere jaso zuen Izerrek, Zabale eta Berastegi panderojoleekin batera, 2012. urtean Azpeitian egindako San Jose Trikiti Jaialdian. Urte hartako jaialdian panderojoleak hartu nahi izan zituen gogoan Trikiti Elkartek. Euskal Herriko Trikiti Txapelketa Nagusian ere parte hartu zuen Izerrek.



Argazkia: Ibon Errazu

Debagoieneko Trikitixa Eguna Aretxabaletan

📍 Aretxabaleta

📅 Maiatzak 22, 23 eta 24

Aretxabaletako Leizarra Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatu da Aretxabaletan. Herriarrekkin batera, eskualdeko trikitilarien parte hartze zabala izan da; Eskoriatzako, Arrasateko, Oñatiko, Aramaioko, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako musikariak ere inguratu baitira. Goizean, herria esnatzeko kalejira egin dute, hainbat gunetan banatutako ibilbidea eginez. Eguerdian, Bergarakoek hartu dute testigua eta baita datorren urtean Trikitixa Eguna antolatzeko ardura ere. Bazkariaren ostean, erromeria izan da Mugi Panderoa taldearekin. Aurtan, maiatzaren 24an ospatu den egun honetaz gain, aurreko egunetan bi tailer izan dituzte: Iraide Ansorenaren panderoa modu ezberdinean jotzen irakasteko tailerra eta Sanín pandergileak gidatuta, bakoitzak bere panderoa egiten ikasteko tailerra.



Argazkia: Goiena

Azkoitiko IV. Trikitixa Eguna, aurten joandakoak oroitzuz

📍 Azkoitia

📅 Maiatzak 24

Dozenaka soinujole eta panderojole San Martinen elkartu dira, handik taldeka banatu eta auzoz - auzo bazterrak girotzeko. Ondoren, Julio Urkixo kalean denak elkartu eta kalejiran Herriko plazara hurbildu dira. Bertan, familia argazkia atera eta bazkariarekin indarrak hartuz, arratsaldean plazako oholtzara igotzeko aukera izan dute bertaratutakoek. Dantzatzeko aukera ere izan da Udalak eta Trikigirok, Azkoitiko Tabernaixek Elkartearen laguntzarekin, antolatutako ekitaldian.

Aurten, kalejirari hasiera eman aurretik, parte-hartzaileek minutu bateko isilunea egin dute Izer, Porrutxo eta Bidani Motzaren omenez.



Argazkia: Ibon Errazu



ARGITALPEN BERRIAK

“Caminos de Guanajuato” LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

Hamabost urte bete ditu Los Zopilotes Txirriaos taldeak eta 2011. urteko lehen diskoa izan zen “Hijos de la Txingada” lanetik, kaleratu berri duten “Caminos de Guanajuato” disko berriara, ehunka emanaldi eskaini dituzte. Nahiz eta plaza taldea izan, bosgarren disko honen aurkezpena aretoetan egin dute.

Jose Alfredo Jimenez abeslari mexikarraren kantu batetik atera dute “Caminos de Guanajuato” disko berriaren izena. “Rantxeren erregea” bezala ezaguna, mexikar doinuen abeslaririk esanguratsuena izan zen adituen arabera. Disko berria Beasaingo Pottoko estudioan grabatu zen 2024 urtean zehar, Fredi Pelaez soinu teknikariaren gidaritzapean, eta taldeak sorturiko hamar kantu berri sartu dituzte bertan. Amodioa, desamodioa, borroka kantuak, gaueko istorioak, eta egun-sentiko biharamunek bat egiten dute festa eta parrandara bideratua dagoen Zopiloteen estudioko azken lanean.




Diskoaren azala



“Inpernuko” XABI SOLANO MAIZA

Xabi Solanok, Fermin Muguruzaren 40 urteko ibilbidea ospatzen ari den nazioarteko biran murgilduta jarraitzen duen bitartean, bere ibilbide musikala jasotzen duen biniloa ekoitzi du. “Esne Zopak”, Esne Beltzaren “Gora” eta “Bi” diskoek edo “Ereñotzu” bakarkako laneko kantuek osatzen dute binilo honen erreperitorioa. Gainera, argitaratu gabeko bi kantu gehitu ditu: “Zirrara konpartitu bat” eta “Dantza zati bat”.




Diskoaren azala

“Maurizia. Biziminaren hotsa” EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA ETA IKASTOLEN ELKARTEA

Maurizia Aldeiturriaga panderojolea du ardatz lanak. Garai hartako panderojoleen ikur bilakatu zen Aldeiturriaga, ordura arte gizonezkoena zen mundu batean lehen lerroan jartzea lortu baitzuen. Mitoa albo batera uztea, eta haren bizitza aldarrikatzea izan da Garbiñe Ubeda idazlea eta Ekaitz Agirre Garluk koloristaren helburu nagusia.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek eta Ikastolen Elkartek elkarlanean ondu dute lana, Xabiroi komiki aldizkarian atalka argitaratu ondoren, orain album gisa kaleratu dena. Maiatzaren 29an aurkeztu da komiki liburua Donostiako Elkar liburu dendan eta, egileekin batera, bertan izan dira Itsaso Elizagoien Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko lehendakaria, Arantxa Munduate Ikastolen Elkarteko ordezkaria, eta Dani Fano Xabiroi aldizkariko koordinatzailea. Aldeiturriagaren bi biloba ere izan dira aurkezpenean, eta haren panderoa jotzeko ohorea ere izan du Julene Otegi, EHTEko zuzendaritzako kideak.



Liburuaren azala



MANEX TORREALDAI

Zumarteren kasuan, proiektu bat gauzatzeko aukera izango da honako hau?

Bai. Ikasleei aukera bat eskaintzeko modua izan da. Izan ere, adin batetik aurrera, taldeetan sartu edo askotan utzi egiten dute soinua. Horregatik, iruditu zitzaidan polita zela haien zatik ikasturtea erromeria bat prestatzeko baliatzea. Ordubeteko saioa izango dute. Badira gazte batzuk dantzaz asko dabilzanak. Oso aproposa iruditzen zitzaidan adin beretsuko trikitilariak eta dantzariek biltzea.

Noaia. 2025/05/13

AIMAR MAIZ

Fernando Goenaga, Ordizian arrantzaleei kantari

Arrantzale munduko "Isil-isilik" abesti ospetsuaren sortzailea Fernando Goenaga Iribarren ordiziarra (Eibar, 1907–Ordizia, 1990) izan zen. Jai giroan, beste abesti batzuekin batera segidan kantatu ohi da. Hainbeste zabaldurik, herrikoia dirudien arren, Goierri du jatorria.

Fernando Goenaga Eibarren jaio zen, 1907ko abuztuaren 16an. 1916an Baionara joan ziren bizi izatera. Pianoa ikasi zuen, baita trikitia ere. 1932an, Donostiako Euskal Asteko lehen saria irabazi zuen, trikitiarekin. Donostiako Orfeoiko abeslari izan zen 1927tik. Ordiziako Errondailan ere gitarra jotzen zuen.

Trikitiaren arloan, Euskal Herriko Elkarteen sustatzaileetako bat eta kide aktiboa izan zen Goenaga. Hala, 1989ko martxoaren 12an Ordizian ospatu zen Trikitilari Egunean omenaldia egin zioten, bai berari, eta bai Paulo Urretabizkaia abaltzisketarrari eta Norberto Oiarbide Benta Txiki idiazabaldarrari ere. 150 bat trikitilari elkartu ziren egun hartan.

Abestea eta tresnak joz interprete izatea zen Goenagaren musikari papera. Konposatzailea ere bazen.

Goiberri. 2025/05/20

XABIER BERSALUZE LETURIA

35 urte ditu aurten Juergasmoan diskoak. Lortu du belaunaldi berrietara iristea, ezta?

Kezka asko ematen dit. Alde batera ondo ikusten dut gure musikak horrela entzutea. Baina gaurko gazte eta musikariak ez al dira kapaz horrelako melodiak sortzeko? Daukaten jakinduriarekin ezin al dituzte melodia berriak sortu, egindako batzuetara joan gabe? Horrek ematen dit kezka. Ez dakit gaur egun musika nahiko geratuta ez al dagoen. Besteek egindakoa aprobeztatzen dute, baina horrela ez goaz inora. Amen Jesus! Segi dezala horrela...

Euskadi Irratia. Guau. 2025/06/13

XABAT IRASTORZA eta MIREN ZUMETA

Aristerrazu aipatuta jendeak pentsatu dezake hau beste garai bateko kontua dela, zaharkituta dagoela? Aristerrazun ligatzen da?

Agian orain dela gutxi arte agian bai, baina orain modan dago. Geroz eta gazte gehiago etortzen da. Aristerrazun negu guztian jaiero jaiero elkartzen ginen eta bertan lagun taldea eta jende asko ezagutu dugu. Dantza mordo bat egin dugu elkarrekin eta gaur egun bikote gara.

Aristerrazun dantzatzeko zer aholku emango zenukete?

Bakoitza nahi duen bezala jantzita joan daiteke, baina eroso. Zapatilekin joatea garrantzitsua da. 3 orduz dantzan arituta, aldatzeko kamiseta eramatea ere komeni da. Oinez eta autobusez joan daiteke, baina jende gehiena autoz joaten da. Dantzan ezakienak ikasteko aukera du, jende asko hasten da jakin gabe.

Euskadi Irratia. Amarauna. 2025/06/15



Urtarrilak 25. Nafarroako XI. Trikiti Jaialdia. Burlata (Kultur Etxean). Antolatzailea: Nafarroako Trikitixa Elkarte.

Parte hartzaileak: Ines Osinaga; Laja II eta Aitziber Otegi; Adrian Otxotorena eta Maria Argandoña; Saioa Lizarralde, Maddalen Arzallus eta Iñigo Sorazu; Alaitz, Gorka eta Hekthor; eta Oilar beltzak.



Martxoak 15. San Joseetako XXXV. Trikiti Jaialdia. Azpeitia (Soreasu Antzokian). Antolatzailea: Euskal Herriko Trikitixa Elkarte.

Parte hartzaileak: Ane Urbieto, Maialen Larrañaga eta Amets Etxaide; Enaitz Alberdi, Araitx Etxaniz, Aitor Alberdi eta June Badiola; Arene eta Uxue; Iñaki Diegez eta Iker Telleria; Julen Rueda *Erkizi*, Manex Unanue, Maitane Unanue eta Josu Uranga; Iñaki eta Ramonen Semeak; eta Napo Saizar eta Aitziber Estanga.

Martxoak 22. Lazkaoko II. Trikiti Jaialdia. Lazkao (frontoian). Antolatzailea: Lazkao Txiki Musika Eskola.

Parte hartzaileak: Alaitz Roteta, Gorka Valdes eta Hektor Folk; Leire Zumeta, Amaia Arza eta Gari Otamendi; Jone Izagirre, Enara Donavera eta Malen Barrenetxea; Irma Karrera, Jokin Tolosa eta Iker Allur; eta Saioa Berasategi, Ane Urretabizkaia, Eider Tolosa eta Uxue Kerejeta.





Maiatzak 31. Trikitifrii II. Trikiti Jaialdia. Azpeitia (Xanjuandain).
Antolatzailea: Trikigiro Kultur Elkartea.

Parte hartzaileak: Miren, Iraia, Irati eta Maddi; Ander Matxain, Mikel Urdangarin eta Aimar Urruzuno; Julen, Araitx eta Gorka; Alba, Nora, Noa, Nahia eta Irati; Janire Seguro eta Elaia Diaz; Maialen, Amets, Oihane eta Ane; Martin eta Maxipi; eta Aiora, Andoitz eta Lanberri.



Irailak 26. Tolosako I. Trikiti Jaialdia. Tolosa (Leidor antzokian).
Antolatzailea: Hauspotuz Trikitixa Elkartea.

Parte hartzaileak: Gorka, Hekthor, Anjel eta Jaime; Ai ama!; Alaitz Telletxea eta Iker Goenaga; Elizagoien ahizpak; Mirua & Maixa; eta Axier Unsain, Irma Karrera eta Amets Arteaga.



Azaroak 1. Kalexarko udazkeneko trikiti festa. Usurbil (Kalezar auzoko plazan).
Antolatzailea: Belmonte auzo elkartea.

Parte hartzaileak: Kristina Solano, Irma eta Amets; Estanga anai-arrebak; Eneko Dorronsoro eta Izer; eta Elizagoien ahizpak.

Irailak 03. Zarauzko Euskal Asteko Trikiti Jaialdia. Zarautz (Lege Zaharren enparantzan).
Antolatzailea: Zarauzko Udala.

Parte hartzaileak: Izaskun Ezeiza, Maider Labaka eta Olatz Leturiaga; Ioritz Txapartegi, Irati Arizmendi, Oier Iturrioz eta Elene Arruti; Amets Etxaide, Oihane Etxaide eta Haitz Lertxundi; Jaione Eskudero, Larraitx Oñatibia eta Lierni Alkain; Ilargi Martin, Oier Illarramendi, Urko Urbietta, Jaione Eskudero, Larraitx Oñatibia eta Lierni Alkain; Eneritz Zapiain, Lore Erostarbe eta Naia Erostarbe; Aratz Olaizola, Irati Orbegoza eta Uxoia Orbegoza; eta Alaitz Roteta, Gorka Valdes eta Hekthor Folk.

Irailak 21. Hernaniko III. Trikiti Jaialdia. Hernani (Gudarien plazan).
Antolatzailea: Hernaniko Musika Eskola eta Hernaniko Udala.

Parte hartzaileak: Alaitz, Gorka eta Hekthor; Lanberri eta Naiara Urresti; Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña; Jaume Parra eta Jokin Tolosa; Ianire, Elaia, Eider eta Lierni; eta Alba, Nora, Noa, Nahia eta Irati.



Azaroak 22. Oñatiko XVII. Trikiti Jaialdia. Oñati (Santa Ana antzokian).
Antolatzailea: Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkartea.

Parte hartzaileak: Maixa Lizarribar eta Manex Torreal-dai; Joxe Agustin eta Andoni Elortza, Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta; Enaitz Alberdi eta Oier Alberdi; Imanol Astiasaran, Unai Andonegi eta Rakel Pujana; Larre Alde trikitilariak; Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte; eta Izar eta Iñigo Irazabal.

Abenduak 20. Aiako II. Trikiti Jaialdia. Aia (probalekuan).
Antolatzailea: Aiako Udala.

Parte hartzaileak: Zabale anaiak, Enaitz eta Oier; Josune eta Aitziber Otegi, Arene eta Uxue; Beñat eta Amaia Lu-luaga, Saioa Lertxundi, Nerea Lertxundi, Aitzol Txapartegi eta Txomin Garmendia; Etxabe anaiak; Kris Solano eta Iruzta; eta Xabi Etxaniz eta Oihan Mendizabal.

UDA



Kepa Arrizabalaga Libano panderojolea zendu da

📍 Gatika

📅 Ekainak 28

Kepa Arrizabalaga panderojolea zendu da, 81 urte zituela. 1944an Plentzian jaioa, baina Gatican bizitakoa, Bizkaiko trikitiaren ikur nagusietako bat izan da.

Aitarekin murgildu zen musikaren munduan, eta Rufino Arrola eta Roberto Etxebarria trikitilarietara ibili zen urte luzez plazaz plaza.

Arrizabalaga munduan zehar ere aritu zen euskal musika zabaltzen. Izan ere, Sevillako Expo 92ko erakusketara eta Estatu Batuetara ere iritsi ziren bere pandero hotzak.



Argazkia: Deia

“Hauspoa & Tunela” dokumentala trikitixaren sorkuntzaren historia azalduz

📍 Zumarraga

📅 Ekainak 30

“Hauspoa & Tunela” film labur-dokumentalak, Madril-Paris trenaren obrekin, akordeoi diatonikoa Zumarragara iritsi zenekoa kontatzen du. 1859an Zumarragara iritsitako Juan Bautista Busca italiarraren akordeoi txiki batek hasten du bidaia eta euskal herri musikan txertaturik, gaur egun ezagutzen dugun trikitira artekoa kontatzen du. Dokumentalak 20 elkarrizketa jasotzen ditu eta tartean dira Zumarragako Trikitixa, Kepa Urteaga, Enrike Zelaia, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Agurtzane



Argazkia: Goierriko Hitza

& Jon Elustondo eta Edurne Iturbe. Ekainaren 30ean Zumarragan egin da proiektuaren kontzertu-aurkezpena eta dokumentalaren eszena batzuk proiektatzeaz gain, musika emanaldia ere eskaini da Kepa Junkera, Jon Maia, Toti Mtnez. de Lezea eta Zumarragako Trikitixaren parte hartzearekin, besteak beste.

Juan Ezenarro *Berastegi* panderojolea zendu da

📍 Azpeitia

🕒 Abuztuak 25

Juan Ezenarro *Berastegi* panderojolea hil da 83 urte zituela. Bere kabuz ikasi zuen panderoa jotzen eta Euskal Herriko plaza gehienetan erakutsi zuen bere trebezia hamarkada luzez. Hainbat soinujole lagundu ditu; besteak beste, Laja, Elgeta, Epelde, Arbe, Zabaleta, Maltzeta, Tapia eta Jauregi. Panderoa ez zen izan, ordea, Berastegik jo zuen instrumentu bakarra: Iñaki Garmendia *Laja* lagunak animatuta hasi zen bateria jotzen 47 urte inguru zituela eta Kupela taldearekin oholtzaratu zuen instrumentu hori hamabi urtez, Xabier Alberdi *Zabale* eta Angel Larrañagarekin batera. 2012ko San Josetako Trikiti Jaialdian omenaldia egin zitzaion Juan Ezenarriori, Azkoitiko *Zabale* eta Manuel Arriabalaga *Izer* musikariekkin batera.



Argazkia: Ibon Errazu

Felix Illarramendi Aldalur *Errota* soinujolea zendu da

📍 Azkoitia

🕒 Irailak 19

Felix Illarramendi Aldalur *Errota* soinujolea hil da 89 urte zituela. Bere aitonak txistua eta danborra jotzen zituen, eta hark piztu zion musikarako grina. 17 urterekin eskuratu zuen lehen soinua eta autodidakta gisa ikasi zuen jotzen. Lehen aldiz Sakabi ikusi zuenean Granada errekan, hari jarraiki, beste hainbat soinujoleren erreferentziak jaso zituen: Auntxa, Maltzeta, Tapia, Elgeta... Herriko ospakizun eta ekitaldi askotan parte hartu zuen, bazkari, afa-ri eta santa eske ugari girotuz. Musikari ez ezik, asmatzaile ere izan zen neurri batean: "Instrumento Errota" izeneko perkusiozko tresna txiki bat sortu zuen, bateria baten antza zuena.

1970eko hamarkadan bi aldiz parte hartu zuen Euskadiko Trikiti Txapelketan, eta urte luzez aritu zen Urola inguruko herriak soinu- z alaitzen. 2009ko maiatzean, Azkoitiko Martitten omendu zuten Imanol Iturbiderekkin batera.



Argazkia: Noticias de Gipuzkoa



MAITANE ITURRIOZ ETA MAIALEN INDAKOETXEA

Zergatik erromeria talde bat? Haize sekzioarekin gainera. Zeintzuk dira arrakasta gehien duten kantuak?

Herriko festetan askotan ikusi ditugu erromeriaak eta talde horiek izan dira guretzat erreferente. Argi geneukan hortik jo nahi genuela. Soinua eta panderoa, akaso, motz geratzen zaio jendeari eta beste instrumentuak batuz gero jantziagoa geratzen da pieza. Hori da gaur egungo joera eta erromeria talde askok, guk bezalaxe, Euskal Herrian dabiltzan taldeen bertsioak egiten dituzte.

Aurten, Süneren *Txitzarro*; boladan dago eta jendeari asko gustatzen zaio. Baita Miruaren *Salda badago*. Guk talde askoren bertsioak egiten ditugu: ETS, Zetak, Vendetta, Gozategi, Egan, Kristina Solano, Doctor Deseo, Hemendik At, Zopilotes Txirrius... Badira beste erromeria taldeetan entzuten ez diren eta nahikoa harrera beroa duten kantuak ere, hala nola Vendettaren *Udarako gau luzeak* eta Ze esatek taldearen *Kantuz eskertu*, adibidez.

Tolosaldeko ataria. 2025/06/28

INES OSINAGA

Irakasle izateaz gain, Lizarribar trikitiaren munduan erreferenteetako bat izan da Osinagarentzat:

«Nik Maixa eta Ixiar ikusten nituenean, handitan haiek bezalakoa izan nahi nuen. Uste nuen trikitia joz ezin nuela Negu Gorriak taldearen antzeko talde bat sortzearekin amestu. Baina gogoratzen naiz Negu Gorriak-en bira batean Tapia eta Leturiaren kontzertu bat ikusi nuela».

Berria. 2025/08/31

AXIER UNSAIN ETA IRMA KARRERA

«Eskualdean trikitiarekiko zaletasun handia dago. Lehen urtean, hutsune bat nabaritzen genuen. Eskualdeko trikitilari eta trikiti zale guztiak elkartzeko plaza bat eta egun bat izan nahi genuen. Aurtengorako, ordea, beste pauso bat ematea falta zitzaigula ikusi genuen. Gure artean jolas egitea ondo dago, baina jaialdi bat antolatzea ere beharrezkoa da, erakusleiko bat egon dadin. Inguruko edo eskualdeko trikitilariak ez ezik, eredu diren beste batzuk ere gonbidatu nahi genituen. Hemen ez da jaialdirik egin, ez trikitilaririk ez dagoelako, ez zaletasunik ez dagoelako, ezta ikasle edo irakasle faltagatik ere. Beste eskualdeetan adina trikitilari ditugu Tolosaldean, baina Hauspotuz-en ez dugu inoiz horiek guztiak jaialdi berean elkartzeko urratsa eman. Aurten aproba egingo dugu, eta ondoren, balioa eman. Aztertu beharko da zer bide markatu beharko dugun datozen urteetarako. Epe ertain-luzera nabaritutako dira gaur egun egindako lanak».

Ataria.eus. 2025/09/19

TRIKI-ARIKETAK



TRIKITILARIENTZAKO
ONGIZATE PILULA





TRIKITIAREKIN BIDAIATUZ

Patrik Larralde (Paris, 1976) eta Unai Izagirrek (Azkoitia, 1995) bidaia handi bana egin dute, baina gauza berberak lotzen ditu: trikitiak. Nork esango luke horrelako esperientziak bizi zitezkeela trikitia aitzakiatzat hartuta?



PATRIK LARRALDE

TrikitiTrip dokumentala ondu du iparraldeko musikariak eta dagoeneko pantaila handian ikusgai dago. «TrikitiTrip trikitiarekin egindako bidaia bat da. Europa ekialdera joaten naiz musika tradizionala topatzera. Helburua da, toki bat, jende bat, kultura bat, gizarte bat ulertzea». Euskal Herrian trikitilari gisa bere lekua zein den topatu nahian hasi zen bidaia honen antolaketarekin, azken urte hauetan gizarteak izan duen aldaketa azkarrak eraginda. Zer da musikaria izatea? Edo herriko musikaria? Zer da musika tradizionala? Galdera asko eta erantzun gutxi. «Hori guzia nahasten zen ene buruan. Kanpora joanez, agian, ene kulturaren egoera hobeki ulertuko nuela pentsatu nuen».

UNAI IZAGIRRE

Trikilintxo taldeko partaide da Unai. Trikitiaren bueltan hasi ziren elkartzen talde horretako kideak, 2014aren inguruan. Ostegunetan, pintxo-potea bukatutakoan, hainbat trikitilari elkartu ohi ziren Azkoitiko Txalintxo tabernan. «Indar handia hartu zuen hitzordua; herritar hainbatek izango du gogoan zita hura. Pentsa, ni hein batean horregatik naiz trikitilaria; han hasi nintzen soina jotzen». Oraingo bidaia hau antolatzeko orduan Izagirreren Josu Bierter lagunak izan du eraginik; izan ere Azpeitian bizi den mutil hau Boisekoa da.

Bidaideak

Pentsatzekoa da horrelako bidaia edo esperientziak bizitzeko, konpainia edo lagunartean gauzak asko errazten direla. Etxekoprod enpresako Etxe kameralaria eta Tierri soinu hartzailearekin partekatu du esperientzia Larralde. «Biak ene lagunak dira; elkarrekin musikan ari garenak eta musika taldearen soina egiten daukuna».

Talde handiagoan joan dira Urola kostakoak AEBetara. Jokin Landa, Ruben Gabilondo, Joxe Agustin Elorza, Eneko Arbeo, Josu Etxaniz, Unai Izagirre, Beñat Plazaola, Iñigo Arrieta eta Ibon Arrizabalok zabaldu dituzte trikiti doi-
nuak atzerrian.

Bidaiaren iraupena

2024an egin zuen bidaia Patrikek, martxoko hilabete guztia baliatuz, 28 egunez. Okzitania, Friulin, Istrian, Maramuresen eta Rodopin ibili da, besteak beste.

Trikilintxoko kideak berriz, 2 astetako bidaia egin dute; AEBetan izan dira uztailaren 28tik abuztuaren 11ra bitartean. Bost urtez behin Boisen (Idaho, AEB) egiten den jaialdi entzute-tsu hau uztailaren 29tik abuztuaren 3ra ospatu dute. «Bi zati izan ditu gure bidaiak: lehen astea, Boiseko Jaialdian igaro dugu; eta bigarre-na, Kalifornia eta Nevada aldean, Euskal Etxeetan barrena» azaldu du Izagirrek. Ez da beraien lehenengo bidaia izan, 2017an Irlandara ere joan baitziren soina eta panderoa hartuta.

Nondik norakoak

Garaziko musikariak, TrikitiTrip dokumentalaren azken emaitzara iristeko prestaketa lan handia egin behar izan du, hiru adarri tira eginenez: norbere buruaren prestaketa, laguntzaileak bilatzea eta dirua lortzea. «Gaitasuna eta euskal kulturarekiko militantzia handia zuten pertsonen laguntza beharrezkoa izan da; baita 25.000 € biltzea ere». Bidaian zehar soinu txikia instrumentu ezberdinekin uztartzeko aukera izan du Larralde: Friulin, Italia iparraldean, diatonikoa, gaita, eta 3 sokadun biola friuliarrarekin; Istrian, Kroazian, txalemiak, bigpipak, whistle bikoitza, akordeoia, biolina, biola, eta kontrabaxu txikiarekin; Maramures & Montenian, ahotsa eta biolinarekin; eta Rodopin, Bulgarian, Ezkilak, Tambura eta Dvoyankarekin. «Musika tresna bereziak ezagutu ditut, hala ere soinu txikia batez ere botzarekin uztartu dut gehienik».





Jaialdiaren egunean Boiseko Pengilly's Saloon tabernan kontzertua eskaini dute Trikilintxo taldeko kideek. «Iritsi ginen egunean eman genuen kontzertua, jaialdiaren esparrutik kanpo baina oso gertu. Jende mordoxka elkartu zen, eta gustura aritu ginen. Soinua eta panderoa, dultzaina, alboka, txistua... jo genituen, eta bertsoetan ere jardun genuen». Neomak taldeak jaialdiaren barruan eskaini duen kontzertuan fandango eta arin-arin bana ere jo dituzte Azkoitiko eta Azpeitiko musikariek. Ez da hor bukatu bidaia; Kalifornia aldera ere jo dute. Renon gau bat igarota iritsi dira San Frantziskora. Bertatik Gardnervillera jo dute, Nevada aldera, han Euskal Kantari Eguna ospatzen baitzuten abuztuaren 9an. «Nevadako herri txiki hartako elizan bertsoetan aritu ginen Jokin Landa eta biok, sortzez Bidaniakoa den Antton Egiguren apaizak gaiak jarrita» azaldu du Izagirrek. Bidaia amaitzeko Chinora joan dira, Los Angelesetik gertu dagoen herrira.

Jasotako harrera

«Herri batzuetan, ezagutzen zuten eskusoinu handia, kromatikoa eta diatonikoa. Beste batzuetan, ez zuten sekulan ikusi». Larralderen esanetan ia denek ez zuten Euskal Herria ezagutzen, ez zekiten non kokatzen zen ere munduan, turismo komertzialarengatik bakarrik ezagutzen zuten zerbait. Hori horrela izanik, gure kultura oraindik eta guttiago ezagutzen dutela konturatu da TrikitiTrip dokumentalaren zuzendaria, telebistan ikusitako erreferentziak baino ez dituztela gure kulturaren inguruan, horrek bere proiektuari indarra emanez. «Gurutzatzen dudan jendeak biziki aberastu nau,

baina beste alde batetik begiratuta, ez. Batzuetan gehiago ikusi/entzun nahi izan dut, bainan ez zen momentu ona edota toki egokia».

Bestelako inpresioarekin itzuli dira Trikilintxo taldeko kideak. Izan ere, AEBkoek ongi eza-gutzen dute Euskal Herria, gure hizkuntza eta kultura; eta modu sutsuan miresten dute. Lezioa jasota itzuli direla nabarmendu du Azkoitiko soinu-joleak. Bidaiari balioa emanez, txundituta geratu dira bertan jendeak zer esfortzu egiten duen euskalduna izateko, edo euskaraz aritzeko, baita euskal kulturaren alde jarduteko ere. «Ematen du hango euskaldunek nostalgiatik egiten dutela egiten dutena, baina ez da horrela: haiek egiten dute, hala direlako. Beren txikian ikasgaia ematen digute, eta uste dut airtortu egin behar zaiela eta lagundu ere bai».

Emaitza eta balorazioa

Pozik agertu da Larralde proiektuak emandakoarekin. Musikari batek komertzioak irentsi-ta daukan mundu honetan zer paper jokatzeko duen ulertzeko balio izan dio. Euskal Herrian bizi den gizarte molde berriarekin, gure kultur tradizionalaren zentzua nola atxiki, hausnarketa berriak burura ekarri... Erantzun batzuk jasota itzuli da bidaiatik soinu-jolea. «Dokumentalak, ene iduriko, gai hauez interesa duen ikusleari beste ikuspuntu bat ekar liezaioke». Proiektuaren jarraipenari buruz galdetuta, ez du ibilbidea itxitzat eman nahi Larralde. Ez du baztertzeko tokatutako musikariek kolaborazioak egitea, edota beste bidaia bat gauzatzea musika tradizionalaren inguruan. Gaur gaurkoz, tokiko zinemetan ikusi daiteke dokumentala eta nahi duenak Larralderekin harremanetan jarritz, erraz antolatuko du gualdi bat dokumentalaren proiektuaren inguruan.

«Oso balorazio ona egiten dugu, bidaia berezia izan da» esan du Izagirrek. Dagoeneko adinean aurrera doazen AEBetara joan ziren lehen artzain haien istorioak zuzenean entzuteko aukera izan dute Urola Kostakoek. Euskal diasporaren aldeko lanean oso garrantzitsua izan da belaunaldi hau eta ikusi dute orain gazteak ari direla erreleboa hartzen. Boiseko Jaialdia bost urtez behin egiten da. Hemendik bost urtera jarraipena izango ote dute aurten bertan eza-gutu dituzten Martin Goikoetxea, Mike Bidart eta Jean Flesherren kontakizunek?

Argazkiak: Patrik Larralde eta Unai Izagirre



Bizkaiko I. Erromeria egunak eman dio hasiera urriari

📍 Durango
📅 Urriak 04

Euskal musika tradizionala eta herri-dantzak herritar guztiei hurbiltzeko helburuarekin sortu da Bizkaiko I. Erromeria eguna, Durangoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Danok Pro kooperatibak antolatuta. Egun osoan zehar, Durangoko hainbat gunetan erromeria estilo ezberdinak izan dira ikusgai, modu dinamikoan, publikoari askatasunez parte hartzeko aukera eskainiz. Aiko; Altxa Porru; Ane Albisu; Errota; Esna gazte; Etxebarria aita-seme trikitilariak; Suga-rrri fanfarrea; gaitero, erraldoi eta buruhandiak; Gari Otamendi eta Oier Araolaza; Gautegun, Goazen!, Gontzal Carrasco; herri kirolak; Ibon Koteron eta Lander Zabala; Iker Alvarez eta Aitor Urkiza Harribitxi; Julen Begoña eta Asier Arroyuelo; Kriskitin; Larrain dantza; Luhartz; Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña; Ostitkada elektrotzaranga; Tronperri; Yogurinha Boro-va; Zabaleta eta Motriku; Zazpizar; eta Zutik izan dira 2025eko egitaraua osatu dutenak.



Argazkia: erromeriaeguna.eus

Trikigiro egunak Azpeitiko kaleak bete ditu

📍 Azpeitia
📅 Urriak 24

Trikigiro Kultur Elkartek, Kulturaz Azpeitiko Kultur Kooperatibak eta Azpeitiko Udalak elkarlanean antolatutako egunean, adin guztietako ehundaka soinu-jole eta pandero-jolek astindu dituzte instrumentuak. Gazteen kalejira eta helduen triki-poteoaren ondotik, kalejira erraldoiak zeharkatu ditu kaleak. Eguna amaitzeko afaria izan da Sanagustin Kulturgunean eta jarraian erromeria.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen berriak

TRIKITI UDALEKUAK

Aurten ere arrakasta handia izan ohi duten udalekuak antolatu ditu Elkartek Asteasun. Iaz, lehen aldiz, bi egonaldi egin ziren eta aurten, hirugarren bat ere osatu da: Lehen taldea **uztailaren 14tik 17ra** elkartu da, bigarrena **17tik 20ra** eta hirugarrena **21etik 24ra**. Bertan, elkarrekin soinua eta panderoa jotzeaz gain, begiraleen eskutik ekintza ezberdinak ere burutu dituzte gazteek: Jolasak, irteerak...

Bestalde, urtero bezala, 12-15 urte bitarteko gaztetxo hauen ikasketak aberastu nahian, ikastaroak ere antolatu dira egun horietarako, hala nola, Hekthor Viñas panderojoleak eskainitako perkusio ikastaroa eta Roberto Etxebarriaren soinu txiki ikastaroa.

FAKTURA ZERBITZUAREN AMAIERA

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek bazkideen eskariz abiatutako faktura zerbitzua amaitu du. 2013an ekin zitzaion lan honi, zerbitzu hau eskaintzen zuten bideak urriak zirelako. Gaur egun ordea, trikitilarion behar honi erantzuten dioten webgune eta enpresak ugariak dira. Lehen urteetan zerbitzua gutxitan erabiltzen bazen ere, pandemia ondorengo urteetan ikaragarria izan da gorakada. Hauek dira 12 urtetako datuak:

- 56 erabiltzaile edo norbanako
- 199 emanaldi
- 647 nomina

PRIMI EROSTARBEREN BIOGRAFIA LIBURUA ETA DISKOA

Aurten, **“Soinuaren Liburutegia”** bildumako **18. alea** kaleratu du Elkartek **“Primi Erostarbe, itzalari dantza”** izenburupean. Panderojolearen bizitza jaso nahi izan da bertan eta Itziar Ugarte Irizar kazetariak idatzi du: “koplari tradizioetik edan zuen Primik eta mundu zahar hura 1970eko hamarkadan suspertutako kultur munduarekin lotu zuenetako bat izan zen”.

Ohi bezala, CD bat ere izango du itsatsirik liburuak eta bertan, Primiren hainbat grabazio bildu dira, hala nola, Felix Illarramendirekin txapelketan jotakoak, Jesus Piquerrekin grabaturikoak, “Zialtzetarekin” jotakoak, irrintziak...



Gora musika!

Duela hamabost urte sortu zen “Ene Kantak” taldeko Eneko eta Nereak “Gora musika!” izeneko proiektu berria abiatu dute. Euskarari bultzada bat eman eta alaitasuna eta bizipoza hedatzea da euren helburua.

Ikuskizun berri honetan, Korrontzi taldea, Bixente Martinez musikaria, dantzariak eta erraldoiak izango dituzte lagun eta betiko abesti ezagunez gain, abenduan kaleratuko den disko berriko abestiak aurkeztuko dituzte zuzeneko musikaz.



GARBIÑE UBEDA ETA EKAITZ AGIRRE, GARLUK

Binetaren bat nabarmenduko zenukete besteen gainetik?

Niretzat hasiera potentea du, gerrako irudi horiek... Benantziori gertatutakoa mingarria da. Nik bat nabarmentzekotan Maurizia umetan nabarmenduko nuke. Istoria zure eramatzen duzu eta zure aitona-amonak izango balira imajinatzen duzu.

Euskadi Irratia. Arratsean. 2025/09/22

ASIER GOZATEGI

Musikari bezala, zein izan dira aurre egin behar izan diezun erronka handienak?

Gu hasi ginenean, erronka trikitiarekin kalejirak egitea zen, abesti batzuk ikasi eta kalera ateratzea. Gero, txapelketek ere es-tutu egiten dute, teknikoki hobeto prestatu behar baitzara. Erromeriak egiten hasi gine-nean, aldiz, beste gauza bat zen. Erromeriak kudeatzen jakin egin behar da; orain kontzertuetan badakigu lehenengo abestia eta azkenekoa zein izango diren, baina dagoen giroaren arabera egin behar da lan, DJ ba-tek bezala, jendearen arabera. Horiek denak dira erronkak, baita talde bat osatzea ere. Guk maketa inongo asmorik gabe atera ge-nuen, eta diskoa egiteko aukera etorri izana erronka bat izan zen. Urteetan zehar eman-dako kontzertu bakoitza erronka bat izan da, baita osasunez ondo egotea ere. Erronka handiena horixe da.

Orioguka.eus. 2025/09/29

IÑAKI LARRAÑAGA

«Pertsonak boladak izaten ditu eta bi umeak dezente hazi eta gero kanpora begira jarri nintzen. Rantxera bat erakutsi nien lagunei eta oso ona zela esan zidaten. Grabatzea era-baki genuen eta Beasaingo Pottoko estudio-ra jo genuen. Ondoren, bidean ezagututako jende askorekin taldea osatu nuen. Hasie-ran, Imanol eta Xabierrekin kontatzen nuen eta bati eta besteari deika zazpi laguneko taldea osatu dugu. Bi nafar ditugu (Urriza eta Razkin). Gainontzekoak goierritarrak gara. Azken urtebetean 30 bat kontzertu egin ditugu. Horren ibilbide motzean ho-rrenbeste kontzertu egitea harrigarria da».

Goierriko Hitza. 2025/10/07

UXUE KEREJETA

«Aitaitarekin Arrate Irratian trikitixa en-tzuten nuela esaten dit beti amak. Musika eskolara joan naiz, dantza egiten nuen... Bergarako musika eskolan soinu eta pande-ro irakaslea naiz. Gitarra eta pianoa, berriz, hala moduz jotzen ditut. Katekesis bertsio taldean jotzen nuen eta gitarrak inbidia han-dia ematen zidan. Akorde batzuk ikasi ni-tuen, kantatzea ere gustatzen zait, sortzeko gogoa nuen... eta abesti batzuk egin nituen».

Goierriko Hitza. 2025/10/09

PATXI AGIRRE

Badu hausporik trikitixak Nafarroan?

Bai, badu. Baina horrela segituz, beti zerbait antolatzen eta bulkatzen, bide hori segituz. Gure nahia ez da jendea 30 pieza ikasi arte kaiolan sartuta ikasten edukitzea. Bizpahiru pieza ikasi eta gurekin etortzen dira. Pieza horiek jotzea tokatzen denean joko dute. Ikasleari bulkada izugarria ematen diozu horrela. Motibatzeke modu berezia da.

Guaixe. 2025/10/14

RUPER ORDORIKA

«Nik hemen, Lasarten (Gipuzkoa) egin nion azken diskoa Mauriziari [Maurizia Aldeitu-rriaga pandero jotzaile eta abeslariari]. Asko kostatu zitzaidan konbentzitzea. Eri zen ordurako, eta Arteara (Bizkaia) joan nintzen pare bat aldiz haren etxera. Emakume aparta zen. Taxia jarri genien Lasartera, eta han etorri ziren Basilio Txiki [Basilio Undagoitia soinu jotzailea] eta Leon [Bilbao albo-karia]. Ailegatu ziren baserritarrez jantzita, sartu ginen estudiora, eta hastekoa zenean kantuan, etorri zitzaidan eta galdetu zidan: “amen, non gaoz amen?” [Hemen, non gaude hemen?]. Lasarte zela esan nion, eta orduan hasi zen kantuan, eta estrofa eta estrofa ar-tean, “Aupa Lasarte!” oihukatu zuen».

Badok.eus. 2025/10/29

MARTIN ALTUNA

«Euskal musikan edo euskal kulturaren ezagu-nak diren zenbait melodia eta erreferentzia hartuta, tekno iluna egiten saiatu gara. Triki-tiaren protagonismoa pedaletan dago. Hau da, gitarrei jartzen zaizkien pedalak trikiari jarri dizkiogu guk, eta hortik ateratzen dena da, besteak beste, gure musikaren bereiz-garri nagusia. (...) Gure artean hitz egin izan dugunean, ondorioztatu dugu triki-tronik izan daitekeela egiten duguna ondoen defi-nitzen duen terminoa».

Guka. 2025/10/29

ARGITALPEN BERRIAK



KOPLARIK KOPLA: Xabier Berasaluze Leturia

45 urte egin ditu Leturiak han eta he-men koplak kanta-

tzen, eta liburu batean bildu nahi izan ditu berak kantaturiko koplak gehienak, trikitixa eta porrusaldak, denen hitzak jasoz eta hainbat datu bilduz: letraren eta doinuaren egileak, ezagunak baldin badira, noiz non eta norekin kantatu izan duen, graba-ziorik ote dagoen, eta beste zenbait. Trikiti zaleentzat interesgarria izateaz gain, molde txikiko euskal poesiaren erakusgarria eskaintzen du.



LAZTURAK ORBAIN: Neomak

Urtebete oholtzetatik kanpo egon ondoren, disko berriarekin itzuli da Neomak taldea. Euskal folklorea eta elektronika uztartuz egin dituzte abesti berriak eta taldearen formatuari dagokionez ere eman dira alda-ketak. Egun, lau emakumek osatzen dute taldea: Alaitz Eskudero Unanue, Garazi Otaegi Lasarte, Irati Gutierrez Artetxe eta Leire Etxezarreta Learretak. Berritasun gisa, zuzeneko emanaldietan bi musikari izango dituzte haiekin batera oholtza gai-nean: Etxahun Urkizu, baterian, eta, beste-tik, Eider Villalba, teklatu eta ahotsetan.



MAGALA: Haize Arrosa

Magala diskoa musikalki folkaren oinarrian dago, baina estilo anitzekin aberasten da, “folk-fusioa” deitu daitekeena: euskal folketik hasi eta runba, country edo balkan ukituak barne. Abestiak esperientzia propioetatik, emozioetatik, borroketatik eta kezketatik jaio dira, eta bakoitzak mezu bat darama. Aurreko lanarekin alderatuta, abestiak kitarra akustikoan eta biolinaren laguntzaz garatzen dira, instrumentu elektrikorik gabe, soinu naturalen eta landuagoan.



SERAFINA: Txapela Brava

Txapela Brava taldea plazaz plaza ibili da 2025ean rantxera eta korridoen doinuak zabalduz. Urte amaierarako, *Serafina*, 4 kantuko EPEa kaleratu dute, edizio mugatua Durangoko Azokan bakarrik eskuragarri egongo dena.



MISTER ELEIZEGI: Joseba Tapiak


Bere diskogintzako hamargarren lana kaleratu du Joseba Tapiak. Bere lehenengo diskoa argitaratu zuen moduan, hamargarren hau ere Koldo Izagirrerekin ondu du; kantugintzan oinarritzen den lana. Eder-tasunari buruzko kezkei tiraka landu dute diskoa, lehenengo diskoan apoa zen protagonista, oraingo honetan berriz, Altzoko handian topatu dute islatu nahi duten edertasuna. Diskoa Tiritrauki Musika Dendan egongo da salgai eta www.josebatapia.eus helbidean entzungai.



HARIA: Julen Alonso

Julen Alonsok bere hirugarren diskoa argitaratu du. Lan berri honetako kantuek

ondo deskribatzen dute Julenek oholtzetatik kanpo egon den urte hauetan askatu behar izan dituen korapiloak. Iker Telleria (perkusioa), Xabier Zeberio (sokak), Jokin Barriola (baxua) eta Gorka Urra (gitarra) izan ditu bidelagun.



BASK: Xabi Aburrizaga

Diskoak bi urteko bi- zipen, hausnarketa eta etengabeko ikaskuntzaren emaitza diren konposizio berriak

biltzen ditu. Aburrizagaren zazpigarren diskoa da *BASK* eta 13 konposizio berrik osatzen dute. Prozesuan Kalakan, Mikel Markez, Xabier Zeberio, José Urrejola, Xabier Diaz eta Thaïs Morellek hartu dute parte besteak beste. *BASK* hitzak berak adierazten du lanaren funtsa; hitz honek ingelesez “gozatu” adierazi nahi baitu.




Hamarkada bat Tomas Zubizarreta Zendoia soinu-jolea zendu zela. 20 urte Balentin Aldalur Iruretagoiena Zialtzeta soinu-joleak utzi gintuela. 30 urte berriz, Primi Erostarbe pandero-jole eta irrintzilaria hil zela.

2015eko irailaren 25ean hil zen Tomas Zubizarreta Zendoia. 1930eko azaroaren 30ean jaio zen Azkoitiko Martirieta edo Martitte auzoan. Osaba trikitilaria lanera joaten zenean, haren soinua hartzen zuen 10 urte inguru izango zituen mutikoak. Bere kasa ikasi zuen soinua jotzen, sasoi hartan askok ikasten zuten moduan, eta 16 urte ingururekin jo zuen jendaurrean lehen aldiz bere auzoko plazan. Txapelketak ere ezagutu zituen Zendoiak: besteak beste, Euskadiko Trikitixa Txapelketan izan zen 1979, 1980 eta 1982 urteetan, Luis Alberdi Zabale pandero-jolea lagun zuela. Omenaldiak jasotako ere bada: 1990eko irailaren 16an Itsasondo Urkia auzoan omenaldia eskaini zioten hogeita bost urtean bertara joateagatik, Azkoitiko Martirieta auzoan 2004eko maiatzaren 30ean bere anaiarekin batera eta 2014ko martxoaren 19an Azpeitiko Soreasu antzokian.

2005eko maiatzaren 30ean zendu zen Balentin Aldalur Iruretagoiena Zialtzeta soinu-jole eta trikitizalea. Jazinto Rivas Elgetaren ikaslea, harekin harreman estua izan zuen. Elgeta hil zenean Zialtzetak berak jaso zituen haren gauzak eta soinuak. Elgeta soinua jotzen entzun daitekeen grabazio bakarra ere berak gorde zuen, ondoren, Soinuaren Liburutegiko lehen liburuan, Elgetari eskainitakoan, argitaratua izan zena. Ez zuen diskorik grabatu, ez zuen txapelketarik irabazi, baina, erromeriaz erromeria eta herriz herri asko ibili zen Primi Erostarbe lagun zuela.

1907. urteko otsailaren 24an, Araotzen (Oñatin) jaio zen Primi eta 88 urterekin zendu zen 1995eko abenduaren 6an. Jazinto Rivas Elgeta soinu-jolearekin jotzen aritutakoa zen. EHTEak omenaldia eskaini zien 1996. urteko urriaren 27an Primi Erostarbe eta Rufino Arrolari Gernikan. 1970ean Donostian "Trikitilarien I Txapelketa" ospatu zen. 7 irrintzilaria ere aritu ziren bertan eta irrintzilarietan, Primi Erostarbe atera zen garaile. 1971an Donostiako Trinidad Plazan ospatu zen Trikitixa Txapelketa Nagusian Felix Illarramendi Errota trikitilariarekin batera aurkeztu zen. rikitilariak "Bidean zuekin" izeneko diskoa argitaratu dute, beraien hirugarren lana. 10 abestiz osatutako diskoa da eta bertsioak eta abesti propioak txertatu dituzte. Trikitia eta panderoa dira instrumentu nagusiak eta euskal estiloari eutsi diotela azpimarratu dute. Hala ere, rantxerak, rock doinuak eta baladak ere entzun daitezke.





ALTZAPORRU

2025
URTEKARIA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

